

## EUSKAL IZEN SINTAGMAREN EGITURAZ

Robert L. TRASK

Izen sintagma kategoria sintaktikoa, oraingoan, munduko hizkuntzalari ia guztiek onartzen dute unibertsaltzat. Hau ta guztiz ere, berandu samar sartu da kontzeptu hau euskal gramatikan. Izan ere, ez da oraino ere zeharo onartua; adibidez, M. Sagüés-en 1980-ko liburuan (aski liburu modernoa, ikuspuntu batzutatik), izen sintagma kontzeptuak ez du lekurik aurkitzen.

Euskal gramatika tradizionalak, izen sintagmaren beharrean, izenei buruz bakarrik mintzaten dira, edo, hobeto esan, izen eta adjetiboei. Ithurry-k emandako deskribapena zeharo tipikoa da: «Quand un nom est accompagné d'un ou plusieurs qualificatifs, sans l'intermédiaire d'un verbe, le suffixe se place seulement à la fin du dernier, les autres conservent leur état indéfini» (1979, 410. horr.). Baieztapen berdintsu bat agertzen da Umandi-ren gramatikan: «Cuando al nombre hayan de acompañar un adjetivo y el artículo determinante, éste se sufixa al adjetivo; y, si hay más de un adjetivo, se sufixa al último» (1976, 27. horr.).

Zenbait euskalariren deskribapenetan, haatik, izen sintagma kontzeptu ikusten da, ilunbeka egon arren; adibidez, Harymbat eta Pons-en 1963.ko liburuan: «Le nom basque forme avec ses épithètes et son article un groupe homogène dans la déclinaison; *seul le dernier mot* de ce groupe prend la désinence des cas. Les autres mots restent invariables». (34. horr.; enfasisa liburuan bertan). Baina, interpretazio honetan ere, izen sintagmak ez du barneko egiturarik; zeharo «laua» da, hitz-kate bat bakarrik. Behean erakutsiko den bezala, holako egitura bat ez da egokia, eta ezin da onartu.

Orain dela hamarren bar urte, zenbait sintasiari hasi ziren izen sintagmak erabiltzen beren idazlanetan — T. H. Wilbur (1970), R. P. G. de Rijk (1972), eta K. Mitxelena (1972). Baina aztertzaile hauek ez zioten izen sintagmaren barneko egiturari begiratzen; lan honetan Patxi Goenaga hasi zen lehenbizi, bere 1978.ko liburuan.

Izen sintagmaren egituraren ezaugarri garrantzitsuenak aurkeztu izan ditu Goenagak, eta ezaugarri horiek behean aurkituko dira. Haatik, eraku-

tsiko den bezala, Goenagak emandako egitura oraino ere «lauegia» da; beste hitzez, egitura gehiago postulatu behar da, Goenagak emandakoa baino. Gainera, zenbait jeneralpen eman behar dira, Goenagak proposatu ez baititu.

Goenagaren erregelak hauek dira (1980, 103-4. horr.); bi joko desberdin ematen ditu:

(1) *Lehen jokia*

$$(1.1) IS \rightarrow (Izlg) + IM + (Det)$$

$$(1.2) IM \rightarrow I + ((grad) + Adj)$$

$$(1.3) Det \rightarrow (zenb) + (mug)$$

$$(1.4) Izlg \rightarrow \left\{ \begin{array}{l} IS \\ Alg \end{array} \right\} + erl$$

(2) *Bigarren jokia*

$$(2.1) IS \rightarrow (Izlg) + (Predet) + IM + (mug)$$

$$(2.2) Predet \rightarrow \left\{ \begin{array}{l} zenb \\ indef \end{array} \right\}$$

$$(2.3) IM \rightarrow I + ((grad) + Adj)$$

$$(2.4) Izlg \rightarrow \left\{ \begin{array}{l} IS \\ Alg \end{array} \right\} + erl$$

Laburpenak: IS = izen sintagma  
 Izlg = izenlaguna  
 IM = izenaren multzoa  
 Det = determinantea  
 I = izena  
 grad = graduatzailea  
 Adj = adjetiboa  
 zenb = zenbatzailea  
 mug = mugatzailea  
 Alg = aditzlaguna  
 erl = erlazio atzizkia  
 Predet = predeterminantea  
 indef = indefinitua

Bigarren jokoak «predeterminante» delako posizioa eskaintzen du, *biru*, *zenbait*, *anitz*, eta antzeko gauzentzako leku bat lortzeko. Lehen jokia aukeratzen badugu, holako hauek Det nudoaren azpian sartu behar dira, eta transformazio bat aplikatu behar da, hauek beren azken lekura mugitzeko. Esate baterako, \**liburu zenbaitetan* zuzenki sortarazita gero, transformazioaren bidez, *zenbait liburutan* lortzen dugu.

Behean erakutsiko den legez, ez dugu holako transformaziorik behar euskal izen sintagmaren egitura deskribatzeko.

Oraingoan, kontsidera dezagun IM kategoria hori. Zergatik sartzen dugu holako kategoria bat euskal gramatikan? Goenagak ez du esplikatzen bere erabaki hau, baina kategoria hori beharrezkoa da, sinpleki ikusten den bezala.


Munduko edozein hizkuntzatan, erregela unibertsal hau egokia dela ba dakigu: bi atal berdintsu bakarrik elkar daitezke. Adibidez, bi adberbio elkar daitezke: *gero eta gutxiago*. Edota, bi izen sistagma: *Edurne eta zazpi ipotxak*. Edota, bi perpaus: *Euria hasi zen eta denok etxean sartu ginen*. Baina ez bi atal desberdin: \**gero eta Patxi* (adberbioa eta izen sintagma), \**etxe berria eta mendira* (izen sintagma eta aditzlaguna), \**handia eta hedatzen da* (adjetiboa eta aditz sintagma). Gainera, bi atal elkartzeaz egindako atal handiagoa beti moeta berberetara izan behar da: bi izen sintagmatatik, izen sintagma handiago bat; bi perpausetatik, perpaus handiago bat; eta abar.

Orain, kontsidera dezagun honako hau:

(3) *Balio zahar eta asmo berrien bidez, Euskal Herria aurreratua da.*

*Bidez* hitzaren aurreko atala iturburu honetatik dator: *balio zahar eta asmo berriak*. Hau izen sintagma bat da, noski. Eta, axalean, irudi daiteke izen sintagma hau bi izen sintagma txikiagotatik sortzen dela: *{balio zahar} eta {asmo berriak}*. Baina hau okerra izango litzateke. *Balio zahar* ez da izen sintagma bat, determinanterik ez duelako; gainera, *-ak* atzizki plural hori atal *biei* dagokie. Beste hitzez, atal guztiaren esannahia hau da: *balio zaharrak eta asmo berriak*. Azken sintagma horretan, bi izen sintagma jator ditugu: *{balio zaharrak} eta {asmo berriak}*, biak lotuta handiago batetan. Baina *balio zahar eta asmo berriak* desberdina da: horren barneko egitura hau izan behar da: *[[{balio zahar} eta {asmo berri}ak]*. Hau da, elkartu diren atalak ez dira izen sintagmak, zerbait txikiago baizik. Zer dira? Izen multzoak, noski. Izen multzoa, izen bat baino handiagoa da, baina izen sintagma bat baino txikiagoa. Zera esan daiteke, izen sintagma bati determinantea kentzen zaionean, hondarra izen multzoa dela. Beraz, gure adibidearen atal-egitura (4) da:


(4)



Ikusten den legez, elkartu diren atalak izen multzoak dira, eta biez osatzen den atal handiagoa, izen multzoa da ere bai —elkartzeetan unibertsaliki gertatzen den bezalaxe. Baina, izen multzoa kategoria onartu gabe, ezin genezake egiturarik eman holako sintagmetarako. Beraz, IM kategoria sartu behar da euskal gramatikan, eta Goenagaren erabiltzea zuzenetsi behar da.


Baina, beste ikuspegi batetik, Goenagak emandako analisiak problema handi bat ematen digu. Goenagaren lehenengo erregelaren arauera, izenlaguna, izen multzoa, eta determinantea elkarren «ahizpak» dira, hirurak izen sintagma nudoaren «alabak» izanik. (Eta bigarren jokoan, predeterminantea laugarren ahizpa bat da.) Ondoreko egiturak, berriz ere, zeharo «lauak» dira. Adibidez, *gizonaren etxe zahar(r) a* sintagma analizatzekotan, Goenagaren erregelek egitura hau ematen digute (1980, 98. horr.):

(5)



Zertan datza problema hemen? Honetan: ezin direla izenlaguna eta determinantea ahizpak. Hau ikusteko, kontsidera dezagun elkartzedun adibide bat: *gizonaren etxeak eta abereak*. Argi dago hemen bi izen sintagma ditugula, bi determinante daudelako. Goenagaren erregelaren arauera, izenlaguna, izen multzoa, eta determinantea ahizpak dira. Horregatik, eratorriko genukeen egitura (6) da:

(6)




Egitura hau posiblea da, baina ez da posible bakarria. Bistan den bezala, (6)-ren esannahia *abereak eta gizonaren etxeak* sintagmaren kidea izan beharko litzateke. Baina normalean, *gizonaren etxeak eta abereak* hitzak entzutekotan, euskaldun batek «gizonaren etxeak eta gizon berberaren abereak» ulertuko luke. Eta esannahi hori ezin da atera (6)-tatik. Egitura horretan, *gizonaren* izenlaguna *etxeak* hitz-kateari bakarrik dagokio; inolaz ere legokioke *abereak* hitz-kateari. Horregatik, (6) ez da egitura zuzena, eta Goenagaren lehenengo erregela aldatu behar da.

Behar dugun egitura beheko erregelen bidez sortu ahal dugu:

- (7.1) IS → Izlg + IS
- (7.2) IS → IS + Junt + IS
- (7.3) IS → IM + Det
- (7.4) IM → I (Adj)


Horiek aplikatzeaz, (6)-ren beharren, (8) lortzen dugu:

(8)



Egitura honetan, *gizonaren* izenlaguna *etxeak eta abereak* izen sintagma osoari dagokio, behar bezalaxe. Gainera, beste esannahia, (6)-an erakusten dena, lortu ahal dugu erregela berberen bidez, (9)-an erakusten den bezala:

(9)




Beraz, (7) erregelen bidez, bi egitura posibleak eta dagozkien bi esannahi posibleak lortu ahal ditugu. Ondorio honetarako gakoa hau da, izenlaguna ez dela izen multzoaren edo determinantearen ahizpa, izen sintagmarena baizik.

(7) erregelei berriz ere begiratzen baldin badiegu, beste zerbaiz ikusten dugu: (7.1) errekursiboa dela, IS terminoa ezker aldean dagoelako eta eskuin aldean ere bai. Horregatik, erregela hori behin baino gehiago aplikatu

ahal da. Hori egiten baldin badugu, (10) bezalako perpausak deribatzen ditugu:

(10)



(Adibide hau, Mitxelena (1972)-an, 28. horrialdean, aurkitzen da.) Holako adibideetarako ez dago egiturarik Goenagaren erregelaren arauera.

(7)-an eman diren erregelak izen sintagma askotarako lortzen dituzte egiturak; hala ere, ez denetarako. Lehenbizi, ez dugu ezer esan Goenagaren «predeterminantea» kategoriari buruz. Kategoria horren zergatikoa hau da, zenbait determinante izenaren aurrean gertatzen direla; adibidez, *zenbait, aski, zenbat, zein, anitz* (zenbait euskalkitan), *edozein*, eta besteak. (7) erregelak ez diete biderik ematen hauei. Horregatik, beste erregela bat behar dugu:

(11)  $IS \rightarrow Det + IM$ 

Deribazio batetan, IS kategoria berridaztekotan, nahiz (7.3) nahiz (11) aukeratu ahal dugu, atzeko edo aurreko determinanteak hartzera. Determinanteak, noski, subkategorizatu behar dira, baina holako subkategorizapena edonolako analisisian beharko da.

Graduatzaileek problema handiago bat dakarkigute. Goenagak proposatu duen erregela hau da [(1.2.) edo (2.3.)]:  $IM \rightarrow I + [(grad) + Adj]$ . Hitzez, izen multzo batek izen bat eduki behar du, eta adjetibo bat eduki dezake, eta adjetibo bat baldin badago (ez bestela), graduatzaile bat eduki dezake. Hori ondo dago, baina erregelak graduatzailea adjetiboaren aurre-aurrean sartzten du. Ezarrera hori desegokia denez gero, Goenagak transformazio bat behar du, graduatzailea mugitzeko. Adibidez: *gizon oso ona* => *oso gizon ona*.


Baina transformaziorik ez dugu behar, graduatzaileen ibilera lortzeko. Erregela sintagmatikoak bakarrik aski ditugu, ezaugarri sintaktikoez («syntactic features») baliatzen baldin bagara. Holako ezaugarriak erabiltzea Gerald

Gazdar-en lanetan deskribatzen da, bereziki Gazdar (agertuko)-an. Beheko erregelak egokiak dira:


- (12.1) IM → {± Grad]  
 (12.2) IM → Grad + IM  
           [+ Grad]           [+ Adj]  
 (12.3) IM → IM + Grad  
           [+ Grad]   [+ Adj]  
 (12.4) IM → {± Adj]  
           [- Grad]  
 (12.5) IM → IM + Adj  
           [+ adj]   [± Adj]  
 (12.6) IM → I  
           [- Adj]

Hitzez: Bi ezaugarri sintaktiko behar ditugu: {± Grad} eta {± Adj}. Izen multzo bat nahiz [+ Grad] nahiz [- Grad] izan daiteke. [+ Grad] baldin badu, graduatzaile bat eduki behar du, nahiz izen multzoaren aurrean (aurrekoen artean, *oso*, *aski*, *arras*, etab. ditugu) nahiz atzean (*-ago*, *-en*, *-egi* atzizki konparatiboak ditugu hemen), eta izen multzoaren barruan adjetibo bat sartu behar da. Eta izen multzoa [- Grad] denean, adjetibo bat oraino posiblea da, baina ez da beharrezkoa. (12.5) erregelak adjetibo bat baino gehiago sartzeari ematen dio bide. Erregela horiek, (7) eta (11)-ekin, behekoak bezalako egiturak lortzen dizkigute:


(13.1)



(13.2)



(13.3)



Numeralen ibilera pixka bat konplexua da. Batzutan, numeralak ematen dira beste determinanterik gabe: *gizon bat, etxe bi* edo *bi etxe, Donostiako hiru damatxo*. Beste batzutan numeralak aurkitzen ditugu determinante definituekin: *etxe biak* edo *bi etxeak, hiru andereak, bi etxe zahar hauek*. Baina inoiz ez doaz numeralak determinante indefinituekin: *\*zein bi gizon, \*zenbait hiru etxe*.

Distribuzio hori lortu ahal dugu beheko erregelen bidez:

(14.1)  $IS \rightarrow [\pm \text{Num}], [\pm \text{Def}]$

(12.2)  $IS \rightarrow IS + Det$   
 $\begin{bmatrix} + \text{Num} \\ + \text{Def} \end{bmatrix} \begin{bmatrix} + \text{Num} \\ - \text{Def} \end{bmatrix} \quad \{+ \text{Def}\}$



$$(14.3) \quad \begin{matrix} \text{IS} \\ \left[ \begin{matrix} \alpha \text{ Num} \\ \beta \text{ Def} \end{matrix} \right] \end{matrix} \rightarrow \left\{ \begin{array}{l} \text{IM} + \text{Det} \\ \left[ \begin{matrix} \alpha \text{ Num} \\ \beta \text{ Def} \end{matrix} \right] \\ \text{Det} + \text{IM} \\ \left[ \begin{matrix} \alpha \text{ Num} \\ \beta \text{ Def} \end{matrix} \right] \end{array} \right\}$$

Determinanteak holan kategorizatzen dira:

Det [+ Num, + Def] : - - - - -

Det [+ Num, - Def]: *bat, bi, hiru, ...*


Det [-Num, +Def]: *-a(k), hau, hauek, hori, ...*

Det [- Num, - Def]: *zein, zenbait, batzu, zer, ...*


Beti bezala, determinanteak subkategorizatu behar dira, aurreko ala atzeko lekuan doazen arauera.

(14) erregelek ematen dituguten egituren adibideak hauek dira:

(15.1)



(15.2)



Ordinalak ez digute problema handirik ekartzen. Normalean, ordinalak determinante definituekin gertatzen dira: *bigarren liburua, azken hiru etxeak*. Beraz,

$$(16.1) \quad \text{IS} \rightarrow \{ \pm \text{Ord} \}$$

$$\quad \quad \quad \{ + \text{Def} \}$$

$$(16.2) \quad \text{IS} \rightarrow \text{Ord} + \text{IS}$$

$$\left[ \begin{array}{c} + \text{Ord} \\ \alpha \text{ E} \end{array} \right] \quad \left[ \begin{array}{c} - \text{Ord} \\ \alpha \text{ E} \end{array} \right] \text{E} = \text{edozein ezaugarri}$$

Zenbait adjetibo, bereziki nazionalitatezkoak, izenaren aurrean doaz, euskal adjetibo gehienak ez bezala: *Euskal Herria, Frantses Bidea, ingeles giltza*. Hauek lortzeko, (17) aski dugu:

$$(17) \quad \text{IM} \rightarrow \text{Adj} + \text{IM}$$

$$\quad \quad \quad \{ + \text{Adj} \} \quad \quad \quad \{ \pm \text{Adj} \}$$

Erregela hau (12.5).aren kidea da; adjetiboak, noski, subkategorizatu behar dira izen multzoko lekuen arauera.

*Beste* hitza bakoitza da, leku berezia duelako izen sintagman eta beste edozeinekin gertatu ahal delako. Beraz,

$$(18) \quad \text{IS} \rightarrow \text{beste} + \text{IS}$$

Izen propioak eta beste zenbait izen sintagma determinanterik gabe gertatzen dira: *Patxi, Bilbo*, (baina *Patxi galant hori* edo *Patxi galanta*, ez *\*Patxi galant*), *Artzai joan zen Ameriketara* (Goenagak esplikatzten duen legez, *Artzaina joan zen Ameriketara* zeharo desberdina da). Erregela sintaktikoen lana da, holakoak beren lekuetan ipintzea; hemen, behar dugun guztia hau da:

$$(19.1) \quad \text{IS} \rightarrow \{ \pm \text{Det} \}$$

$$(19.2) \quad \text{IS} \rightarrow \text{IM}$$

$$\quad \quad \quad \{ - \text{Det} \} \quad \{ - \text{Adj} \}$$

$$(19.3) \quad \text{IS} \rightarrow \{ \pm \text{Num} \}, \{ \pm \text{Def} \}$$

$$\quad \quad \quad \{ + \text{Det} \}$$

(7.1) erregelak izenlaguna kategoria sartzen du, baina beste erregela bat behar dugu izenlagunaren barruko egitura adierazteko. Izenlagunak hiru moetakoak ditugu: *-ko* sintagmak, genitiboak, eta perpaus erlatiboak. Beraz,

$$(20) \quad \text{Izlg} \rightarrow \left\{ \begin{array}{l} \text{Alg} + \text{-ko} \\ \text{IS} + \text{-en} \\ \text{P} + \text{-n} \end{array} \right\} \quad \begin{array}{l} \text{Alg} = \text{aditzlaguna} \\ \text{P} = \text{perpaus} \end{array}$$

Adibideak:  $[\text{Alg} \text{Euskal Herrian}] + \text{-ko} \rightarrow [\text{Izlg} \text{Euskal Herriko}] \text{gazteak}$



- (23.5) IS → IM  
[- Det] [- Adj]
- (23.6) IS → {± Num}, {± Def}  
[+ Det]
- (23.7) IS → {± Ord}  
[+ Def]
- (23.8) IS → Ord + IS  

$$\left[ \begin{array}{l} + \text{ Ord} \\ \alpha \text{ E} \end{array} \right] \quad \left[ \begin{array}{l} - \text{ Ord} \\ \alpha \text{ E} \end{array} \right]$$
- (23.9) IS → IS + Det  

$$\left[ \begin{array}{l} + \text{ Num} \\ + \text{ Def} \end{array} \right] \quad \left[ \begin{array}{l} + \text{ Num} \\ - \text{ Def} \end{array} \right] \quad [+ \text{ Def}]$$
- (23.10) IS → 
$$\left\{ \begin{array}{l} \text{IM} + \text{ Det} \\ \quad \left[ \begin{array}{l} \alpha \text{ Num} \\ \beta \text{ Def} \end{array} \right] \\ \text{Det} + \text{IM} \\ \left[ \begin{array}{l} \alpha \text{ Num} \\ \beta \text{ Def} \end{array} \right] \end{array} \right\}$$
- (23.11) IM → {± Grad}
- (23.12) IM → 
$$\left\{ \begin{array}{l} \text{Grad} + \text{IM} \\ \quad [+ \text{ Adj}] \\ \text{IM} + \text{Grad} \\ \quad [+ \text{ Adj}] \end{array} \right\}$$
- (23.13) IM → {± Adj}  
[- Grad]
- (23.14) IM → 
$$\left\{ \begin{array}{l} \text{IM} + \text{Adj} \\ \quad [\pm \text{ Adj}] \\ \text{Adj} + \text{IM} \\ \quad [\pm \text{ Adj}] \end{array} \right\}$$
- (23.15) IM → I  
[- Adj]
- (23.16)  $\alpha \rightarrow \alpha \text{ Junt } \alpha$  ( $\alpha =$  edozein kategoria)

Zerrendako erregela guztiak erregela sintagmatikoak dira, eta orden gabekoak. Horien bidez, euskarazko zeinnahi izen sintagmari egitura bat eman dakiok. Eta ez dugu transformaziorik behar.

*Eskerrak: Beti bezala, nere euskal lagunei esker beroenak eskeini nahi nizkieke, eman didaten laguntzagatik, eta bereziki Esther Barrutia nere emazteari. Artikulu bonetako okerrak nereak dira, noski.*

*Gainera, Patxi Goenagari asko zor diodala esan behar dut; Goenaga, ia bakar-bakarrik, euskal sintasiaren ikertzapenean hasi da bere liburu bikainaren bidez.*

*Azken finean, agur beroenak eskeini nahi nioke Aita Lafitte-ri, eta nere estimua adierazi bere kontribuzio baliotsuagatik euskalaritza arloan. Atzerriko euskalari asko bezala, ni ere Aita Lafitte-ren liburuaz hasi nintzen euskaraz ikasten.*

#### Erabilitako idazlanak:

G. GAZDAR (Agertuko), «Phrase Structure Grammar», G. K. PULLUM eta P. JACOBSON-EK prestatzen duten *On the Nature of Syntactic Representation* liburuan, D. Reidel (DORDRECHT).

P. GOENAGA (1978; bigarren edizioa 1980), *Gramatika Bideetan*, Erein (Donostia).

J. B. HARYMBAT eta B. PONS (1963), *Méthode basque pour débutants*, Editions Ezkila; bigarren edizioa (1980), ELKAR (Zarautz).

Abbé ITHURRY (1979; lehen edizioa 1894-1907), *Grammaire basque*, Ediciones Vascas (Donostia).

P. LAFITTE (1944; hirugarren edizioa 1979), *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*, ELKAR (Donostia).

K. MITXELENA (1972), *Zenbait Hitzaldi, ETOR (Bilbo)*.

R. P. G. de RIJK (1972), «Relative Clauses in Basque: A Guided Tour», P. M. PERANTEAU, J. N. LEVI, eta G. C. PHARES-ek prestatu zuten *The Chicago Which Hunt* liburuan, Chicago Linguistic Society (Chicago).

M. SAGÜÉS (1980), *Gramática Elemental Vasca*, TXERTOIA (Donostia).

UMANDI (1976), *Gramática Vasca*, Kardaberaz (Tolosa).

T. H. WILBUR (1970), «Ergative and Pseudo-Ergative in Basque», *Fontes linguae vasconum* II:4, 57-66 horr.